



ABALTZISKETA

## **HERRIKO TXAKUR JABEEI DEIA**

Udalaren eremu publikoetan txakurrak ibiltzen dira solte eta gainera bere beharrak egiten.

Eremu publiko horietara edonor joan dezake eta txakurrak egoteko debekurik ez badago ere, beraiek egiten dituzten beharrak jasotzeko ardura ere txakurraren jabeak izan behar du. Horrela ezean, txakurraren egin beharrak biltzen ez badira, beste erabiltzaileek eremu publikoa erabiltzeko garaian oztopo horrekin aurkitzen dira.

Herritarren aldetik kexak izan dira, eta kexa hauen berri guztiak jakinaraztea nahi zen eta batez ere txakurrak dituzuen herritarrei.

Baita ere, txakur asko solte ibiltzen direnean eremu publikoaren beste erabiltzaileak beldurtuta sentitzen dira. Txakur horiek, eremu publikoan lotuta joango balira beldur gutxiago sentituko lukete.

Beraz, guztioi jakinarazi nahi zaizue, eta batez ere txakurrak dituzuenei, eremu publikoaren erabilera egin behar denean, txakurrak lotuta eraman behar direla eta beraiek egiten dituzten beharrak bildu egin behar direla ere.

### **MESEDEZ ZAINDU ZUEN TXAKURRAK**

Abaltzisketan, 2021eko martxoaren 1ean.

Alkateak